



REASek auditatutako 10 entitatetik 9k bateratzen ditu lana, zaintza eta ekintzailatza

Ainhoa Ortega Bretos

@ob_ainhoa

Ekonomia sozial eta solidarioaren esparruko 71 enpresa eta entitatek hartu dute parte EAEko 2016ko Auditoria Sozialean. 2.894 langile kontratatu eta 4.406 boluntario daude horietan. Erakunde baten "eraginkortasun soziala" eta helburuekiko "jarrera etikoa" ebaluatzen du prozesua da auditoria, eta Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) sustatzen du.

Ekonomia solidarioaren sei printzipioak barneratzen ditu auditoria sozialak: ekitatea, lana, ingurumen-iraunkortasuna, lankidetzak, irabazi asmorik gabekoa izatea eta inguruarekiko konpromisoa. Modu horretan, sektorearen eta entitate bakoitzaren errealitatearen diagnostikoa egitea da asmoa.

Horren arabera, entitateen %48ak ditu soldata publikoak, eta erabakiak hartzerakoan %37koa da parte-hartze maila. Emakumeen lanpostuak %56 dira, eta horietatik %46ak erabakiak hartzen ditu.

Entitateen %90ak hartzen ditu presakuntza sustatzeko neurriak. Kontratuaren %43 mugagabeak dira (2015ean %46), eta aztertutako erakundearen %89ak hartzen ditu laguntza neurriak beste pertsonen zaintza, norbere buroaren zaintza edota ekintzaile gisa izan ditzaketen konpromisoak lanarekin bateratu ahal izateko.

Ingurumenari lotuta, hobekuntza neurriak dituzten erakundeak %63 dira eta 9.238 kilokoak dira CO2 isurketak, 2015an baino 2.232 kilo gutxiago.

%87ko lankidetzak

Ekonomia solidarioaren sareko entitateen arteko lankidetzak %87koa da, eta sektoreko entitateei egindako erosketak %15 dira.

Sare edota erakunde sozialei emandako laguntza ekonomikoa 3.000.000 eurokoa da, eta aztertutako %70 dira finantza etikoen bazkide eta bezero.

Inguruarekiko konpromisoaren atalean, erakunde bakoitzak batez beste bost eraldaketa saretan hartzen du parte.

EKONOMIAREN TALAIAN

Urteko lotsagarrikeria sozioekonomikoa



Juan Mari Arregi

Urtea amaitzean, balantzeei buruzko albisteak sortzen dira. 2016a ixtera goaz eta zutabe honetan urteko lotsagarrikeria sozioekonomikotzat jotzen duguna eskainiko dugu. Lan prekarietatea, lan istripuak, desoreka soziala, kapitalaren zikoizkeria... horiek ere izan zitezkeen urteko lotsaizunak. Errepikatzen den zerbaite da. Baina 2016ko lotsagarrikeria, denoi eragiten baitigu, izan herritar edo instituzio, gobernu edo alderdi, honakoa da: Mediterraneoa milaka migratzaileen hilobi bilakatzen ari da, euren herrialdeetako gosete eta gerretatik ihesi datozenak.

Iaz ere, lotsarik handiena horixe bera genuen. Oraingoan berriz, 2016an, itsaso horretan hildakoen kopuruak gora egiteaz gain, europar instituzio eta gobernuak ez dute bete migratzaileei harrera egiteko konpromisoa. Erdialdeko Mediterraneon 4.646 lagunek galdu dute bizia, 2015ean baino mila gehiagok (3.522 hildako). Italiak bakarrik, 2016an 180.000 migratzaile artatu behar izan zituen, errekor berria ondutik. Estatistika triste horren barruan milaka haur daude.

Urte honetako lotsagarrikeria handiena ere bada alderdi eta gobernuen jarrerak erakusten duen miseria politikoa. Euren konpromisoa huts egin diete, eta aldi berean milaka milioi euro gastatu dituzte migratzaile horien jatorrian dauden gerretarako armak erosteko. Beti bezala, migratzaileak baizik esportatzen ez dituzten herrialde pobreetan inbertitzea ahazten zaion kapitalismoa ere bada lotsarako motibo, toki horiek esplotatuz egin baitira aberats asko eta asko. Eta herritarrok lotsagarrikeria horren erantzule gara, maiz beste aldera begiratzen dugulako eta babesten ditugulako beraien konpromisoak betetzen ez dituzten erakundeak.